

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 379/2015 Foru Agindua, ekainaren 11koa, onartzen duena 411 eredua, "Kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga. Autolikidazioa" izenekoa**

Abenduaren 27ko 16/2012 Legeak, finantza publikoak kontsolidatzeko eta ekonomia jarduera bultzatzeko tributuen arloko hainbat neurri onartzen dituenak, kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga sartu zuen Espainiako zerga sisteman, baina xedatu zuen 2013ko zergaldian karga tasa ehuneko 0 izango zela.

Ondoren, uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege Dekretuak, hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituenak, kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zergari ehuneko 0,03ko karga tasa ezarri zion, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta erreforma eta hobekuntza teknikoak egin zizkion 16/2012 Legeak ezarritako arauketari.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak ekonomia ituna aldatzea erabaki zuen, besteak beste, kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga ituntzeko. Gero, apirilaren 21eko 7/2014 Legeak ekonomia itunaren aldaketa onartu zuen.

Ituntze hori, halaber, Arabako Biltzar Nagusiek berretsi zuten, otsailaren 26ko 4/2014 Foru Araua, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren lehenengo erabakia berrestekoa, dela medio.

Ekonomia Itunaren 23.ter artikulua arabera, kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga itundutako tributu bat da eta Estatuak unean-unean ezartzen dituen arau substantibo eta formalen bidez arautuko da. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga horren karga tasak ezarri ahal izango dituzte, lurralde erkidean indarrean dauden muga eta baldintzen barruan.

Horrez gain, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitortpena eta diru sarrerak egiteko ereduak onar ditzakete, zeinetan, gutxienez, lurralde erkideetan jasotako datu berdinak agertuko diren; horrez gain, eskumena dute likidazioaldi bakoitzeko diru sarrera epeak finkatzeko, baina horiek ezin dira oso desberdinak izan Estatuaren administrazioak finkatutakoen aldean.

Eskumen hori erabiliz, Foru Aldundiak uztailaren 15eko 2/2014 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua onartu zuen, zeinak kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautzen duen, Arabako Biltzar Nagusiek uztailaren 28ko 31/2014 Foru Arauaren bidez baliozkotua.

Arauketa horrek 2013ko urtarrilaren 1etik ditu ondorioak, eta 2014ko zergalditik aurrera zergadunak autolikidazioa aurkeztera behartzen ditu, bai eta ekitaldi bakoitzeko uztailaren zergaren konturako ordainketa egitera ere, uneko zergaldiari dagokiona.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren azaroaren 21eko 732/2014 Foru Aginduaren bidez, 410 eredua, zergaren konturako ordainketarena, onartu zen.

Aurrekoaren arabera, 411 eredua, kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zergaren autolikidazioarena, onartu behar da, bai eta hura aurkezteko baldintzak eta prozedura ezarri ere.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

## XEDATZEN DUT

**1. artikulua. Onartzea 411 eredia**

Onartu egiten da 411 eredia, "Kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga. Autolikidazioa" izenekoak. Foru agindu honen eranskinean jasotzen da.

**2. artikulua. 411 eredia aurkeztera behartuak**

411 eredia aurkeztera behartuta daude kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zergaren zergadunak, uztailaren 15eko 2/2014 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak, kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautzen duenak, 7. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ez bada behintzat dekretu horren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera salbuetsita daudela.

**3. artikulua. 411 eredia aurkezteko epea**

1. Zergaldiari dagokion urtearen hurrengo urteko uztailaren 1a eta 31 bitartean aurkeztu beharko da 411 eredia.

2. Zergaldiari dagokion urtearen hurrengo urteko uztailaren 1a eta 25a bitartean, biak barne, aurkeztu ahal izango da 411 eredia, baldin eta haren ondoriozko zerga zorra bankuan helbideratuta ordaindu nahi bada.

**4. artikulua. 411 eredia aurkezteko modua**

Telematikoki baino ezin izango da aurkeztu 411 eredia, "Kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga. Autolikidazioa" izenekoak.


## XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Foru agindu honen 4. artikuluan xedatutakoa gorabehera, salbuespenez, 411 eredia pape-rean aurkeztuko da, harik eta telematikoki aurkezteko prest egon arte.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 11

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**AITOR URIBESALGO LORENZO**

*Ogasuneko zuzendaria*  
**JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO**

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.alava.net</p>	<p><b>Kreditu erakundeetan gordailututakoaren gaineko zerga</b> <b>AUTOLIKIDAZIOA</b> Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito AUTOLIQUIDACIÓN</p>	<h1>411</h1>
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila		Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos
<b>1</b> IDENTIFIKAZIOA IDENTIFICACIÓN	<p><b>Identifikazio etiketa ipintzeko gunea</b> Espacio reservado para etiqueta identificativa</p> <p><b>2 SORTZAPENA ■ DEVENGO</b></p> <p>Zergaldia ■ Período Impositivo <input type="text"/></p> <p>IFZ ■ NIF <input type="text"/> Izena edo sozietatearen izena ■ Denominación o razón social <input type="text"/></p>	
<b>3</b> LIKIDAZIOA LIQUIDACIÓN	<p>Zerga oinarria ■ Base imponible (*) <input type="text"/> <b>01</b> <input type="text"/></p> <p>Karga tasa ■ Tipo de gravamen <input type="text"/> <b>02</b> <input type="text"/></p> <p>Zerga kuota ■ Cuota tributaria <input type="text"/> <b>03</b> <input type="text"/></p> <p>Konturako ordainketaren zenbatekoa ■ Importe del pago a cuenta <input type="text"/> <b>04</b> <input type="text"/></p> <p>Aurreko aitopenaren emaitza (ordezko autolikidazioa eginez gero) Resultado de la declaración anterior(exclusivamente en caso de autoliquidación sustitutiva) <input type="text"/> <b>07</b> <input type="text"/></p> <p>Luzapen erretegia ■ Recargo de prórroga <input type="text"/> <b>08</b> <input type="text"/></p> <p>Berandutze interesak ■ Intereses de demora <input type="text"/> <b>09</b> <input type="text"/></p> <p>Ordaindu beharreko zenbatekoa ■ Importe a ingresar <input type="text"/> <b>10</b> <input type="text"/></p>	
<b>4</b> ORDEZKO AUTOLIKIDAZIOA AUTOLIQUIDACIÓN SUSTITUTIVA	<p><b>Autolikidazio hau bada kontzeptu, ekitaldi eta aldi beraren aurreko ORDEZKO autolikidazio batena, adierazi lauki honetan "X" jarri.</b></p> <p style="text-align: center;"> <input type="text" value="901"/> <b>ORDEZKO autolikidazioa ■ Autoliquidación SUSTITUTIVA</b> <input type="text" value="1"/> <input type="text"/> </p> <p><b>ORDEZKO autolikidazioa bada, idatzi hemen aurreko autolikidazioaren aurkezpenaren erregistro zenbakia</b></p> <p style="text-align: center;">Aurkezpenaren erregistro zenbakia ■ N° registro de presentación <input type="text"/></p> <p><small>Si esta autoliquidación es SUSTITUTIVA de otra autoliquidación anterior correspondiente al mismo concepto, ejercicio y período, indíquelo marcando con una "X" esta casilla:</small></p> <p><small>En caso de autoliquidación SUSTITUTIVA, consigne a continuación el número registro de presentación de la autoliquidación anterior:</small></p>	
<b>5</b> ORDAINDU EZANAREN FROGAGIRIA JUSTIFICANTE DE INGRESO	<p style="text-align: center;"><b>ORDAIN GUTUNA ■ CARTA DE PAGO</b></p> <p>Zigilua eta izenpea ■ Sello y firma <input type="text"/> Erakundearen gakoa (IBAN kodea) ■ Clave entidad (Código IBAN) <input type="text"/> Data ■ Fecha <input type="text"/> Zenbatekoa ■ Importe <input type="text"/></p>	
<p>(*) Egoitza nagusian zein Arabako Lurralde Historikoan dauden sukurtsaletan merkaturatze sistema presentzialen bidez mantenduriko hirugarrenen funts gisa zenbatu behar dira; baita merkaturatze sistema ez-presentzialen bidez mantendurikoei dagokien zati gisa ere.</p> <p>Deberán computarse tanto los fondos de terceros mantenidos mediante sistemas de comercialización presenciales en la sede central o sucursales situadas en el Territorio Histórico de Álava, como la parte correspondiente de los mantenidos mediante sistemas de comercialización no presenciales.</p>		